


DOSSIERRA

#KOLABORATORIOAK

Eraikuntza kolektiboko guneak



KoLaboratorios



AURKIBIDEA

1. #KOLABORATORIOAK	5
1.1 Produktuak	5
1.2 Nori zuzenduak	6
2. PROGRAMA	7
2.1 Lankidetzza Publiko-Soziala	7
2.2 Herritarren Partaidetzako Guneak	8
2.3 Komunikazioa eta Teknologia	8
2.4 Iruñeko gizarte-ehunaren azterketa	8
2.5 Ebaluazioa, Gardentasuna, Trazabilitatea eta kontuak ematea partaidetzaren inguruan	9
3. EGUTEGIA	10
4. NOLA PARTE HARTU?	11

#Kolaboratorioak ekimena Demokrazia Partizipatiboaren Iruñeko Tokiko Foroak sustatu du, udal-teknikariekin elkarlanean eta unibertsitate-ikertzaileen eta dinamizatzaile-talde profesional baten laguntzarekin.

#Kolaboratorio bat bilgune bat da, esperientzia eta ikuspuntu ezberdinak dituztenen artean solasteko, elkarlanetik abiatuta eta errealitatearen azterketa, hausnarketa eta sormen kolektiboa baliatuta, ikaskuntzak sortu eta emaitza berritzaileak lortze aldera.

#Kolaboratorioak programa bost lan-esparrutan egituratuta dago, zein bere eduki zehatzekin eta,aldi berean, elkarrekin lotuak. Taldeen arteko eta horien barruko komunikazioa elkarriketa horizontalean eta sarean egindako talde-lanean oinarrituta dago, betiere moduetan berrikuntzak egiten saiatuta parte hartu nahi duten eragileei eta horien egoera pertsonalei egokitzeko.

Ekimen hau sortu da Toki Administrazioaren eta herritar aktiboen arteko elkar-entzutea eta elkarlan bateratua inoiz baino gehiago eskatzen duen momentu batean. Dударik gabe, aukera paregabea da kolektiboki aurrera egiteko eta demokrazia partizipatiboan sakontzeko, gure gizartea hobetzen laguntzeko tresna gisara.

1.1 Produktuak

#Kolaboratorioetatik ateratako ondorioak nabariak izanen dira, eta horiek gomendio gisa agertuko dira sektore publiko eta sozialak egindako lanari jarraipena ematea ahalbidetzen duten proposamenetan eta hausnarketa-materialetan. *#Kolaboratorioen* emaitzek eragina izanen dute Partaidetzako Erregelamendu berrian eta berariazko bestelako arauetan (hala nola, ordenantzak), edota honako agiri hauek egiterakoan: Gizarte-ehuna eta herritar aktiboak sustatzeko Plana, Herritarren Partaidetzako Politika Publikoak ebaluatzeko Gida eta etorkizunean egingo den Herritarren Partaidetzako Alorrerako Komunikazio Plana. Halaber, *#Kolaboratorio* bakoitzeko parte-hartzaileek haien ondorioak aterako dituzte.

Taldeen emaitza loteslea ez bada ere, gomendio horiek Demokrazia Partizipatiboaren Iruñeko Tokiko Behatokiak kudeatuko ditu, zeinak konpromisoa hartuko baitu Udalak emandako erantzunak emateko eta, modu arrazoituan adierazteko zer hartzen den kontuan eta zer ez, baita erabaki horien zergatia ere.

Programaren inguruko argibide, agiri eta ondorio guztiek, hala nola egindako topaketa eta dinamikek arrasto ireki eta gardena utziko dute horretarako prestatutako webgunean (**www.Kolaboratorios.eus**) eta *Participa Pamplona*ko sare sozialetan, hartara elkarriketa, erkatze eta hausnarketek bidea egin dezaten espazio digitalean, **###Kolaboratorios** traolarekin.

1.2 Nori zuzenduak

#Kolaboratorioak Iruñeko gizarte-ehunarekin lotutako pertsonei eta herritar aktiboek zuzenduta daude, ezagutzak jaso edo partekatu nahi dituztenei, esperimentatzen ari direnei edo haien ingurunearen hobekuntzan eragiteko modu berritzaileak bilatzen dituztenei, betiere partaidetza- eta lankidetzak-estrategietatik abiatuta.

Bost *#Kolaboratorio*etako bakoitzean aurrez aurreko zenbait saio aurreikusi dira, sarrera librearekin (bat baino gehiagora joan daiteke); aurrez izena eman beharko da eta saioen gutxienez jarraitutasuna bermatuko da. *#Kolaboratorio* bakoitzean 25 lagunek parte hartu ahal izanen dute, gehienez ere. Izena emateko epea **otsailaren 6an** amaituko da. *#Kolaboratorio* batean parte hartu nahi izanez gero, eta horretarako izen-ematea bete ez bada, eskatzailea onartua izanen da baldin eta toki libreak egon eta taldearen dinamikak ahalbidetzen badu parte-hartzaile gehiago sartzea.

#Kolaboratorioak proiektuaren lehenengo edizioari amaiera emateko, aurrez aurreko saio bat egingen da, gomendioak aurkeztu eta elkarrekin prozesuaren inguruko balorazioa egiteko asmoz.



PROGRAMA

Programan parte hartzen dutenek aukera izanen dute prozesu zaindu baten parte izateko, konfiantzazko ingurune batean eta talde bakoitzaren beharretara egokitutako alderdi berritzaileak dituen metodologiarekin.

#Kolaboratorioak proiektuak hausnarketarako bost eduki proposatzen ditu: Lankidetzaren Publiko-Soziala, Herritarren Partaidetzako Guneak, Komunikazioa eta Teknologia, Iruñeko gizarte-ehunaren azterketa eta Ebaluazioa, gardentasuna, trazabilitatea eta kontuak ematea.

Aurkezpen gisa, honako gune hauek daude:

2.1 Lankidetzaren Publiko-Soziala

#Kolaboratorio honetan bat egingen dute hiriko gizarte-ehunarekin lotura ezberdinak dituzten hainbat lagunek –bakoitza bere esperientzia, behar eta itxaropenetatik abiatuta–, bertan Udalaren eta gizarte-erakundearen arteko lankidetzaren arautu eta sendotzeko testuinguru egokienaz hausnartzeko asmoz. Honako gai hauek landuko dira:

- Diru-laguntzak eskatu eta emateko prozedura.
- Udalaren lokalen eta espazio publikoen lagapena gizarte-entitateei.
- Harreman-eredu publiko eta sozialarekin lotutako bestelako alderdiak, hitzarmenak eta horien moduko ekimenak bultzatze aldera.

Gai giltzarri horiek lantzean, aintzat hartu nahi ditugu parte-hartzaileen esperientzia, haien jarduerari lotutako beharrak, Herritarren Partaidetzako Alorrarekin partekatutako helburuak eta beste lurralde batzuetan egindako antzeko esperientziak, xedetzat hartuta harreman-esparru eraginkorragoa eta sendoagoa eraikitzea Udalaren eta herritarren artean, horrela gizarte-erronkei erantzuteko.

#Kolaboratorio honetako emaitzak aztertu eta kontuan hartuko dira Udalaren Herritarren Partaidetzako erregelamendu berria eta bestelako berariazko ordenantzak idazteko egingen den prozesu partizipatiboan.

Lankidetzaren Publiko-Soziala izeneko *#Kolaboratorioan* **Korapilatzen** aholkularitza arituko da dinamizazio-lanetan.

2.2. Herritarren Partaidetzako Guneak

#Kolaboratorio honen helburu nagusia da modu kolektiboan hausnartzea eta aberastea Iruñeko Udalak hirian sustatzen dituen partaidetzako guneen ezaugarriak eta funtzionamendua. Parte hartzen duten lagunek eta entitateek honako gai hauek landuko dituzte:

- Herritarren partaidetzako udal-organoak, lurraldekoak zein sektorialak, hala nola kontseiluak, foroak eta behatokiak.
- Iruñean egindako prozesu partizipatiboak.
- Herri-galdeketa eta herritarren ekimenak.

Horretarako, lehenik eta behin, gune horien nondik norakoa eta ibilbidea partekatuko ditugu, eta hortik abiatuta, etorkizun partekatuko eszenatoki bati buruz solastu eta lan egingen dugu, baita horretara heltzeko hobekuntza-proposamenei buruz ere.

Prozesu horretan oinarritzat hartuko ditugu hala parte-hartzaileen esperientziak nola Iruñearen antzeko hirietan ateratako ondorioak. *#Kolaboratorio* honetako emaitzak aztertu eta kontuan hartuko dira Udalaren Herritarren Partaidetzako erregelamendu berria idazteko egingen den prozesu partizipatiboan.

Prometea aholkularitza arituko da dinamizazio-lanetan Herritarren Partaidetzako Guneak izeneko *#Kolaboratorioan*.

2.3 Komunikazioa eta Teknologia

Internet eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) gizartean parte hartzeko moduak gehien aldatu dituzten elementuak dira. Komunikazio-praktiken demokratizazioak herritarrek informazioaren kontsumitzaile huts izatetik komunikazio-jarioetan eragile proaktibo bihurtzea eragiten du, haien interesekoak diren edo kezka eragiten dieten gaien inguruan informazioa eta iritzia sortzeko gai direlarik. Herritarrek ari dira jada solasaldian, ari dira informazioa bilatu eta partekatzen, erkatzea eskatzen eta zuzenean inplikaturako eragileei galdegiten. Administrazio publikoak ari dira herritarren eskaera hori bideratzen, eta arian-arian, partaidetza digitalerako eta entzuteko bide berriak jartzen ari dira.

#Kolaboratorio honetan komunikazio publikoko formula berriak landuko dira, Iruñeko Udalaren eta herritarren arteko lankidetzarako elkarguneak sortuta. Lan horren emaitzak eragin zuzena izan beharko du Partaidetzako Alorrak garatutako komunikazioan. *#Kolaboratorio* honetan tartea egonen da, baita ere, hausnartzeko Publiko-Sozialaren arteko lankidetzatik abiatutako plataforma teknologikoen inguruan eta teknologia digitalen erabilera demokratikoaren inguruan.

Komunikatik aholkularitza arituko da dinamizazio-lanetan Komunikazioa eta Teknologia izeneko *#Kolaboratorioan*.

2.4 Iruñeko gizarte-ehunaren azterketa

#Kolaboratorio honetan Iruñeko auzoen gizarte-ekimen eta elkarre-mugimenduaren balioespina landuko da. Gure hiriaren identitate-zeinu eta indargune da gizarte-ehunaren aberastasuna,

aniztasuna, ibilbidea eta gizarte eraldatzeko duen gaitasuna. Xedea da egungo Iruñeko gizarte-ehunaren “koadroa pintatzea”, eta topagune bat sortzea, bertan sentsibiltate eta jarduketa-esparru ezberdineko elkarteek aukera izan dezaten haien iritziak azaldu, erkatu eta eztabaidatzeko eta kezka partekatzeko.

Prozesu honen zeregina da *#Kolaboratorioan* parte hartzen duten lagunen (denak hiriko elkarte-mugimenduari hertsiki lotuak) esperientziak, beharrak, helburuak eta imajinarioa biltzea. Proiektu honetan lortutako emaitzak funtsezkoak izanen dira Iruñeko elkarte-mugimenduaren imajinario kolektiboa osatzen duten elementu gehienak identifikatu ahal izateko eta gizarte-ehuna sustatzeko plana egiteko.

Labrit aholkularitza arituko da dinamizazio-lanetan Iruñeko gizarte-ehunaren azterketa izeneko *#Kolaboratorioan*.

2.5 Ebaluazioa, Gardentasuna, Trazabilitatea eta kontuak ematea partaidetzaren inguruan

Politika publikoen ebaluazioa funtsezko tresna da erakundeetan gardentasuna sustatzeko. Erronka horri heldu behar zaio administrazioen trazabilitatea eta kontu-ematea bermatzeko, baita herritarrekiko konfiantzazko harremanak sortu eta sendotzeko ere.

#Kolaboratorio honen xedea da Iruñeko Udalak Herritarren Partaidetzari dagokionez egiten dituen ekimenak etengabean sistematizatu eta ebaluatzeko tresna bat garatzea. Horrela, helburua da hobetzea eta aurrerapausoak ematea prozesuak kalitatezkoak izan daitezen. Gerora, prozesu horien betekizunak Herritarren Partaidetzako Iruñeko Politika Publikoak ebaluatzeko Gida Praktikoan bilduko dira.

Lanerako gune honek eragile politiko eta sozialei hurbiltzea proposatzen du, ikuspegi tekniko batetik abiatuta, irizpide- eta adierazle-giltzarriak identifikatzeko asmoz, amaierako saio batean horien inguruko hausnarketa kolektiboa egon dadin. Labur esanda, zeregin horrek xede du Iruñeko Udalak partaidetzaz bezainbatean egiten dituen ekimenen kalitatea neurtu eta baloratzeko metodologieng inguruko tresna-kutxa bat sortzea.

Ebaluazioa, Trazabilitatea eta Kontuak ematea izeneko *#Kolaboratorioan* **Aradia Coop.** aholkularitza arituko da dinamizazio-lanetan, Parte Hartuz taldearen laguntzarekin.

#KOLABORATORIO	DATA	LEKUA	ORDUTEGIA	PARTAIDEAK
LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA	Ots. 8	Redin y Cruzat	18:30 - 20:30	25
	Ots. 17	Redin y Cruzat	10:00 - 14:00	25
	Mar. 1	Civivox Condestable ekitaldi-aretoa	18:30 - 20:30	25
HERRITARREN PARTAIDETZAKO GUNEAK	Ots. 13	Caldereria aretoa	18:30 - 20:30	25
	Ots. 20	Redin y Cruzat	18:30 - 20:30	25
	Ots. 27	Caldereria aretoa	18:30 - 20:30	25
GIZARTE-EHUNA	Ots. 8	Redin y Cruzat	18:30 - 20:30	25
	Ots. 15	Civivox Mendillorri 5. aretoa	18:30 - 20:30	25
	Ots. 22	Civivox Sanduzelai 1. aretoa	18:30 - 20:30	25
	Mar. 1	Civivox Iturrama 1. aretoa	18:30 - 20:30	25
	Mar. 6	Civivox Juslarrotxa 7. aretoa	18:30 - 20:30	25
KOMUNIKAZIOA ETA TEKNOLOGIA	Ots. 8	Redin y Cruzat	18:30 - 20:30	25
	Ots. 17	Civivox Condestable 5. aretoa	10:00 - 14:00	25
	Mar. 1	Civivox Condestable 4. aretoa	18:30 - 20:30	25
EBALUAZIOA ETA KONTUAK EMATEA	Ots. 8	ZENTRO	13:00 - 15:00	25
	Mar. 1	ZENTRO	13:00 - 15:00	25
	Api. 12	ZENTRO	13:00 - 15:00	25
	Mai. 10	ZENTRO	13:00 - 15:00	25

4

NOLA PARTE HARTU?

Gizarte-ekintzako ekimen bati lotutako pertsona bat zara eta *#Kolaboratorio* batean –edo gehiagotan– parte hartu nahi duzu?

Eman ezazu izena orain!


Izena eman dezakezu honako bitarteko hauetako baten bidez:

- Bidali mezu bat **informacion.participacion@pamplona.es** helbidera.
- Bete **inprimaki hau**
- Deitu guri, **948 420266** telefonora, izena emateko edo edozein zalantza argitzeko.
- Zatoz Zentrora. Kondestable Civivoxa. Kale Nagusia, 2, 2. solairua. Iruña.

Izena emateko epea zabalik izanen da otsailaren 6a arte.

#Kolaboratorio bakoitzean 25 lagunek parte hartuko dute, gutxi gorabehera. Eskerak tokiak baino gehiago izanez gero, eskaera-kopuru orekatua egotea bilatuko da, honako hautaketa-irizpide hauekin bat: auzoa, gizarte-entitate bakoitzeko parte-hartzaile kopurua eta adin nahiz generoaren inguruko dibertsitate-irizpideak.

Zatoz!



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

zeniro

Espacio colaborativo | Elkarlaneko gunea